

ASVIAMIE-Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkartearen GUTUNA

DIPUTATUEN KONGRESUARI

2000. urtearen hasieran sortu genuen elkarte, jakin genuenean aurreko urteetan, askotan oso aspaldi, amianto-zuntzak arnastu zituztelako, langileak, eta haien familiartekoak, gaixotzen ari zirela, eta askotan hiltzen ari zirela.

Eratu zenetik, Elkartekook, ahalegina egin dugu betiere biktimei laguntzeko, nola esparru judizialean hala medikuntzakoan. Gure lanaren muina izan da, bestalde, jakinaraztea, gizartearen atal guztiei, eta bereziki mediku-jendeari, eta iritzi publikoari oro har.

Amiantotik eratortzen diren gaixotasunen jatorriaren ezaguerarako, funtsezkoa izan zen zenbait medikuren dibulgazio-lana; adibidez, Luis López Areal del Amo doktorearena, hura izan baitzen 1978an jada, Laneko Medikuntzako 8. Kongresu Nazionalean, amiantoarekin aritu izanak osasunerako zituen ondorioez ohartarazi zuena. Gogoratu behar da, baita ere, Sevillako Virgen del Rocío Unibertsitate Ospitaleko arduraduna izan zen Francisco Rodríguez Panadero doktorearen lana; haren ikerketa-lanak biziki lagungarriak izan dira amiantotik eratortzen diren gaixotasunentzako tratamenduak izan daitezkeenak bilatzeko.

Gizarte-alorrean, azpimarratu behar dugu gai honetan aditua den Paco Puche ingeniari eta ekonomialariaren lana; Francisco Báez, Uralitako langile ohia eta ikertzaile nekaezinarena; eta bereziki, urte asko eta askotan Ángel Carcoba, mintzaleku askotan, bai nazio mailakoetan eta baita Europa mailakoetan ere, ordezkari soziala izan denak egindako lana; haren jarduera eskerga eta erabakigarriari esker lortu genuen amiantoa behin-betiko debekatzea.

Eskertzen dugu horien lankidetzak eskuzabala; eta deitoratzen dugu beste pertsona baliagarri asko izendatuki ezin aipatua, zerrenda luzeegia izango litzatekeelako.

2013an, Eusko Legebiltzarrak, Talde Sozialistaren ekimenez, Ponentzia bat eratu zuen Amiantoaren Biktimentzat Konpentsazio Funtza sortzea helburu zela.

2013an hasi eta 2016an ponentziaren baitako prozesu parte-hartzailea eta eztabaida amaitu zen arteko bitarte horretan, gizarte-agente guztiek parte hartu zuten hartan: enpresa-elkartek; langileen sindikatuek; ASVIAMIE-Amiantoaren Biktimen Elkarteak; mediku-elkargoek; OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak; eta Eusko Legebiltzarreko talde politiko guztiek.

Ponentzia haren lanen emaitza da Amiantoaren Biktimentzat Konpentsazio Funtzaren Legearen Aurreproiektu hau. Gure ustez, Aurreproiektu asegarria da, zorrotzasunez landuta dago, eta Europako hainbat herrialdetako esperientziak aintzat hartuz egin da.

Aurreproiektu hau bultzatzea garrantzitsua da:

- Behingoz amaiaraziko dituelako auzibide bukaezinak, biktimentzat eta haien familiartekoentzat kostu morala dakartenak.
- Biktima guztiak babesten dituelako, ez soilik kalte-ordainak eman ditzaketen enpresa handietakoak, baizik, baita ere, nori erreklamaturik ez dutenak, beraiek lanean aritu ziren enpresak itxita daudelako, edo haiek kaudimenik ez dutelako; ezin baitugu ahaztu amiantoak sorrarazten dituen gaixotasunak, askotan, hura arnasten aritu eta urte asko eta askotara agertzen direla.

Horregatik diogu Aurreproiektu honek kaltetu guztiak babestu nahi dituela.

Eta beste gizatalde batzuk ere babestu ditzakeelako, bitxiak direla dirudien arren, egon, hor daudenak; esan nahi baita garai hartan “etxeakoandreak” deitzen zirenak, nor bere etxean kutsatzen zirenak, amianto-izpiz beteta zetorren senarraren laneko arropa garbitu edo astindu egiten zutenean; eta, baita, fabriken alboan edo hurbil zeuden auzoetan amiantoa arnasteagatik gaixotu ziren pertsonak ere.

Bestalde, Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarreak zoriondu egin nahi du Eusko Legebiltzarra, eta euskal gizartea, lortu duen kontsentsuarengatik. Iruditzen zaigu gai horretan lortutako aho batezko akordioa, Estatu osora zeharrraldatu behar litzatekeela. Lau urte igaro dira jada Eusko Legebiltzarrak Aurreproiektu hau lehen aldiz erregistrora ekarri zuenetik; eztabaida eta adoste lanen parte bat orain hurrengo legegintzaldian egin zen, hain handi batean, eta Kongresuko politikagintzaren halabeharrez, Aurreproiektua ez atzera eta ez aurrera geratu zen.

Ez dadila beste behin gerta!, eskatzen dugu; arazoa larritzen ari baita. Enpresetatik eta eraikinetatik amiantoa kentzeko lanei ekin behar zaie; ezarrita dagoen amiantoa behar bezala kendu eta behar bezala tratatua izan dadila, bestela, hemendik urte batzuetara ondorioak oraindik larriagoak eta hilkorragoak izan baitaitezke. Eta arazoa larritzen ari da, halaber, biktimek babes bat eduki behar dutelako, Europako beste herrialde batzuetan duten bezala.

Horregatik, premiazkoa da Aurreproiektua Batzordera eramatea.

Kalteturiko pertsona guztiak eta haien familiartekoak gogoan hartuz amaitzen dugu; aintzatespen eta itxaropen mezu bat helarazten diegu, eta berresaten diegu amiantoak gaixotu arazitakoen tragedia hori geldiarazteko eta hirietan eta lantokietan amiantorik gabeko etorkizun bat edukitzeko borrokan jarraitzeko asmoa dugula.

Euskadin, 2021-04-12

